

BERTSOKARIA

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ALDIZKARI DIGITALA

2021ko ekaineko alea

MENDIALDEA BERTSOZALE

BERTSO IKASGELA

SARRERA ALBISTEAK GURI BURUZ IKASTETXEAK IKASLEEN TXOKOA



PISTOLERO JOLASA

Hitz bat emango zaigu eta ea azkar sakatzen dugun berekin errimatzen duen hitza. Adi, tiroak huts egin gabe!

Segi irakurtzen



Berriro jolastu nahi?

Hauek dira aste honetan ikasgelatan egin ditugun jolasak!



Bertso sortak

Bertso jarriak, musikatuta. Kanta dezagun!



Bat-bateko saioak

Gozatu plazako bertsoaldi onenekin!



Xalbadorri txistuak

Ekainaren 11 zen, 1967ko Txapelketa. Historiako une esanguratsuenetako bat gertatzera zihoan... Zer gertatu zen jakin nahi?

2020-06-10

Arabako Mendialdeko ikastetxeen eta kuadrilaren arteko elkarlanari esker urtero Bertsolaritza eskaintzen da Mendialdeko Lehen Hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan. Guztira 2 ikastetxetako 7 taldek landu dute 2020-2021 ikasturte bitxi honetan bertsolaritza 15ean behin, [Mendialdea IPI](#) eta [Maeztu herri eskolak](#) hartu dute parte.

Zailtasunen eta neurri zorrotzen gainera gozamen eta bat-batekotasuna izan dira aurtengo protagonista nagusiak, eta inork gutxi espero ez bazuen ere ikasturtea ederto amaitu dugu.

15ean behin landu dugu bertsolaritza 5. mailatik 2. DBHra eta askotariko ekintzak egin ditugu, bat-batekotasunean trebatzeko jolasak, okasio berezietarako bertso-sortak, Alea bideo koplak lehiaketa, eskolarteko bertso txapelketarako bertsoak, kutxabira, EITB maratoirako bertsoak, ipuinak bertsotan, 6. mailari agur eta oporrei kaixo esateko bertsoak...

Ikasturtea musukoen atzeko irribarre salatariz amaitu dugu. Hurrengoan gehiago eta hobeto!

GELAZ GELAKO BERTSO BILDUMA

Egín KLIK bertsoak ikusteko !!!



KANPEZU

Mendialdea IPI - LH

[Mendialdea IPI ikastetxea, 5. maila: Gabonak aurkezpena](#)

[Mendialdea IPI ikastetxea, 5. maila: Zazpi antxumeak](#)

[Mendialdea IPI ikastetxea, 6. maila: Oporrak](#)

[Mendialdea IPI ikastetxea, 6. maila: Agur 6. maila](#)

Mendialdea IPI - DBH

[Mendialdea IPI ikastetxea, DBH 1. maila: EITB Maratoia](#)

[Mendialdea IPI ikastetxea, DBH 2. maila: EITB Maratoia](#)

ARRAIA-MAEZTU IKASTETXEA LH 3. zikloa

[Maeztu eskola 5. eta 6. maila: Artzain gezurtia](#)





ESKOLARTEKOA MENDIALDEAN

Apirilean zehar ikastetxeetan eta bertso-eskoletan 2500 hurrek bertso idatziak prestatu ostean, maiatzean zehar eskualdez eskualde Topaketak izan dira, idatzizko sari banaketa eta bat-bateko erakustaldiak. Mendialdekoa Maiatzaren 21an izan zen Kanpezu-ko kultur etxean.

Bertso-eskolarenn agurra, MEndialdea IPI eta Maeztu herri eskolako LH 5, LH 6, DBH1 eta DBH2. mailako ikasleen idatzizko lan sarituak eta bat-bateko emanaldiak tartekatu ziren.

Mendialdean ere baino haur gehiagok parte hartu dute bat-bateko modalitatean, Hezkuntza Arautuko metodologia berrikuntza eta bertso-eskolaren hazkundera lagun. ikasleen bat-bateko erakustaldi freskoa izan zen Kultur Etxean, batzuk momentuan bertan erabaki baitzuten taularatzea eta Zigoitian iberriz ere ikusteko aukera izan genuelarik.

Idatzizko eta bat-bateko finalistak Ekainaren 5ean Zigoitian elkartu ziren, txapelketari bukaera borobila emanez. Saria jaso duten Arabako Mendialdeko hurrek Irailaren 12an Hontza Xtrem abentura parkean egun pasa izango dute, goizean idatzizkoek eta arratsaldean bat-batekoek, eta ohartzerako berriz ere zabalik egongo dira gure bertso.eskolak, bertso gosez dauden hurrei martxa emateko prest.





BERTSOA BIZI GAZTE EGUNA

Aguraingo Harresi Aretoan izan zen Ekainaren 15ean Bertsoa bizi gazte eguna eta bertan jokatu zen 14 urtetik 18 urtera bitarteko Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala ere.



ni banax arabakoa

10:00etan lehiaketara aurkeztutako bideoklipak eta mokoka formatuko bideo laburrak proiektatu ziren, eta bertan jakinarazi da zeintzuk izango diren irailaren 3, 4 eta 5ean Manurgako egonaldia sari moduan eskuratu zuten gazteak. Mendialdeko hiru bideoklip izan ziren sarituak eta irudietan klik eginda ikusteko aukera izango duzue.

Bat-bateko saioaren ueña heldu zen gero. Gasteizko Maddi Agirre, Hegoi Amabizka eta Eukene De los Aires, Aramaioko Danel Herrarte eta Gari Arexolaleiba eta Aguraingo Beñat Cano izan ziren hiru eskualdeetan egindako topaketetan aukeratutako 6 finalistak.

Maddi Agirrerri Aitor Ugartek jantzi zion txapela, buru onean dagoela gogoraraziz, eta ia zko lekukoa jasotzen duen egurrezko mikrofonoa pasatzean sendo kantatu zuen "Oinordetzan pasatzea da zure misioa, inoiz ere ez dadila eten transmisioa". Harro eta arduraz kontziente hartu zuen Maddik lekukoa "gazteriaren lana da orain txinparta su bihurtzea, jarrai dezagun bertsolaritzan egiten gure bidea".

Luzaroan gogoan izango duen txapelketako oroigarri horrebila eraman du etxera.



BERTSO ESKOLAK

Kanpezuko bertso-eskolaren berpizkundea ekarri du 2020-2021 ikasturteak. Kanpezuko bertso-eskolan bat-batean trebatzera gazte berriak ausartu dira eta. Bereziki azpimarratzekoa gure ikasleren gazteenek aurten egindako lana eta lortutako bertso maila. Helduen bertso-eskolak ere ez du izan etenik ikasturte osoan zehar asteazkenero bezala, eta hurrengo kuadrilartekorako motorrak berotzen ari dira dagoeneko, esaerak dioen bezala: izan zirelako gara, eta garelako izango dira! .

GOZATU OPORRAK !



[IZENA EMATEKO](#)

